

Funtsesko elkarteak

Kirol eta osasuneko aplikazio batek funtzionatzeko, hainbat bazkide eta hornitzaile nagusi behar ditu: alde batetik, osasun-profesionalak (medikuak, nutrizionistak eta entrenatzaileak) eduki fidagarria sortzeko; bestetik, gimnasioak, kirol-zentroak eta kirol-markak, entrenamendu-programak eta gailu programatuak integrazioa eskaintzeko. Horrez gain, funtsezkoak dira software-garatzaileak aplikazioa garatu eta mantentzeko, hodeiko zerbitzu-hornitzaileak datuen biltegiratzea eta segurtasuna bermatzeko, eta API-hornitzaileak (Google Fit edo Apple Health) jarduera fisikoaren datuak integratzeko.

Bazkide eta hornitzaile nagusiak garrantzitsuak dira guretzat, aplikazioaren kalitatea, fidagarritasuna eta eraginkortasuna bermatzen dituztelako. Osasun-profesionalek edukien zehaztasuna eta sinesgarritasuna ziurtatzen dute, erabiltzaileen konfiantza handituz; gimnasioek eta kirol-markek, berriz, zerbitzua aberasten dute eta erabiltzaileei balio erantsia eskaintzen diete. Bestalde, software-garatzaileek eta hodeiko zerbitzu-hornitzaileek aplikazioaren funtzionamendu egonkorra, datuen segurtasuna eta etengabeko hobekuntza ahalbidetzen dituzte, eta horri esker, erabiltzaileek esperientzia eraginkor eta segurua izan dezakete.



ARGAZKIAK :

https://www.vistaprint.es/?srsId=AfmBOoo_qQ4Zrusb_cRfRKTOJ1IVA5oVCfwG0MHjeQrciAihG_DV_xJ